


Eklipse Miresgarria



Udazkena, urriaren 24a.

Eguzkiaren izpi ahulak hortxe datoz sortaldetik, eta urre antzeko argitasunez jantzi da zeru urdina. Halakoetan hauxe esaten du beti amonak: «gauerako zerua iturri bihurtzen da.»

Hegoaize epela txistuka ari da, lurreko gaztain koloreko orbel ximelduak dantzaka, zora-biaturik eta norabide zuzenik gabe jartzen dituelarik.

Beste hainbatetan bezala, lagun taldea herriko plazan bildu gara, elizako ezkil erdoilduak hirurak zirela entzun arazi digunean.

Pentsatzen jarri eta guztion baieztapenarekin, nire aitona bisitatzera joan gara, ipuin eta istorio gozoz osaturik duen upela hustu eta das-tatzera.

Iritsi eta berehala, zirkulu bat eraikiz, bere inguruan eseri, eta adi-adi, istoriotxo bat entzuteari ekin diogu. Guztion ixiltasuna hautsiz, ahots sendo eta zuhar batez, honela mintzatu da aitona: «Orain dela hirurogeita bost urte, nik hamabi nituela, Goierriko herri txiki honetan, eskupeten burrunbadak nagusi ziren garaian gertatua da.

Ezkatzen, hondar pila baten inguruan, nire burua igeltserotzat harturik neukala, hots itzel eta hunkigarriak, nire jolasa eten eta zeru alde-rantz begira jarri ninduen. Arrano bat ikusi nuen balantzaka, noraezean eta erioan, sasi artean lur hartzen.

Haren atzetik gizon bat saltoka eta brinkoka, irrifar irriskor eta maltzurra zeriola, ulertezinezko zaratots batzuk atereaz. Garaikurraren bila zetorren.

Une horretantxe, negar zotinka, bere kru-delkeria ezin jasanik, harrapakatan; deabruak harturik banengo bezala, hegazti eta ehiztariaren artean jarri nintzen, arranoari nire babes epela eskainiz.

Ehiztaria, hau ikusirik, amorru bizian jarri eta irainka hasi zen:

—Kendu paretik ume mukizua! Harrapakin hori nirea da!

Nire senetik at eta gorputza dardarka nuela, honela mintzatu nintzaion:

—Ez, ez. Ez al duzu sentimendurik? Ez al duzu ikusten sufritzen dagoela?

—Animalia bat besterik ez da! —esan zuen gizonak.

—Baina animaliek ere badute bihotza eta sentimenduak, bizitzen utzi behar zaie!

Istilu haiek entzunik, azkar eta korrika, zaunka bizian, Dik txakurra azaldu zen. Ehiztariak hura ikustean, amore eman zuen. Aurpegitik sua zeriola eta marmarrean, han joan zen tximista bailitzan, ilunabarrean eguzkia eskutatzen den toki beretik. Arranoarengana itzuli nintzenean, hegoak bildurik zituela ohartu nintzen, mokoa berdotza; eta begiak erdi ertsiak odola zeriela. Inori ere opa ez zaion zortea egokitu zitzaion, gorriak eta bi jasaten ari zen.

Hura ikusirik, hanketan sekulako ahulezia somatu nuen eta agortu ezinezko malko iturria atera zitzaidan begietatik. Berehala ohartu nintzen egoera larri baten aurrean zegoela, eta segituan, bertatik mugitu gabe lehenengo sorospinak egiten hasi nintzaion. Hegoa bi oholen artean lotu eta atal hautsia ibilgetu nion.


Etxera sartu eta beheko su epelean egokitu nion txokoa. Egunak joan, egunak etorri, ez nion hobekuntzarik ikusten. Hau ikusirik, esku artean gozo-gozo hartu eta al baitariarengana abiatu nintzen sendatuko zuen itxaropenez. Hiru ordu laurden egon zen arranoaren gorpuzta aztertzen, baina ordu batzuetako bizia besterik ez ziola ikusten esan zidan. Hau entzutean, goibel, etsirik eta ipar garbirik gabe lur jota utzi ninduen. Galdurik nengoen, nora jo ez nenkiela. Ziur naiz, gizakia baino gehiago, inguma itxura nuela.

Adinean sarturik zegoen pertsona batek piurra hartan ikustean, hau esan zidan:

—Zer duzu gazte? Itxura txarra daukazu! Nora zoaz?

Nik orduan, gertatzen zena zehatz-mehatz azaldu nion; eta berak, irrifar samur eta itxaropentsu batez, Atxurbiko mendi magalean, harizti baten erdian bizi den sasi-mediku baten gana bideratu ninduen.

Iristean, honi ere kontaktu nion gertatutakoa. Sasi-medikua berehala hasi zen lanean; pasmo-belarrez baliatuz, pixkanaka-pixkanaka bere onera etorri zen. Begiak argitzen zihoazkion, mokoa sendotzen eta irrifar gozoa masailetan



zabaltzen. Erabat sendatu gabe, baina jadanik askozaz hobeto zegoela, bihotz-bihotzez eskerak eman, eta etxeratu egin ginen.

Hilabete bat behar izan zuen arranoak erabat osatzeko. Hasierako egun haiek, etxe barruan egin bazituen ere, laster ikusi ahal izan genuen etxe inguruan jira-biraka, hegaldia, egunetik egunera trinkoago eta sendoagoa zen.

Egonaldi ahaztezin hartan, bion arteko harremanak izugarri sendotu ziren, elkar ondo ulertzera heldu arte. Baina iritsi zitzaion arranoari lagunengana joateko garaia. Etxe atarian geunden biok, zerura begira jarri eta hegoak indartsu astinduz metroka-metroka, gorantz zihoanean. Une hartan, malko gazi eta gardena isuri zitzaidan matrailezurretik behera. Triste nengoen, arranoa eta nire arteko harremanak azkarregi igaro zirela baineritzon; baina beste aldetik gustura nengoen arranoa berriro ere libre zegoen eta. Goi-gailurretan ikusi nuenean, berehala ohartu nintzen, berreskuratutako zituela lehengo indar, kemen eta ahalmena. Zein dotore, ahaltsu eta gorenekoa zen!



Lehoia oihanean bezala, berari zegokion zeruko erregetza. Pixkanaka-pixkanaka bere irudia txikitzen joan zen ikustezin bihurtu arte. Lagunak zeuzkan itxaroten Ataungo harkaitzetan. Arranoa joana zen baina nire kezkek han jarraitzen zuten, nire burua nahaspilatuz; batez ere, eskupeten tiro-hots zirrargarriak entzuten nituenean.

Egun batean, nire aitarekin artasoroan nengoela, bapatean, sekulako itzala somatu nuen, Xagi (honela deitzen baitnuen arranoa) eta beronen lagunak ziren. Hura ikusita, PINK!, barruko kezkek argitu zitzaizkidan, ideia ezin hobia bururatuz.

«Nik, Xagi arranoaren bizitza salbatu baren ere, aldi berean, hainbat eta hainbat hegazti, ehiztarien eskuetan erortzen ziren. Jasan ezina zen. Beraz, nire ideia jarri nuen mar-txan.»

Egitasmoa azaldu nien eta berehala, milaka eta milaka sai, miru, arrano, zapeilatuz, gabi-rai... bildu ziren, hodei haundi eta zabala osatuz. Inoiz gertatu ez den eklipsea gertatu zen.

Eguerdiko hamabiak ziren; eguzkiaren izpiek ez zuten zirrikiturik aurkitzen; iluntasuna zen nagusi. Bertatik, euren kexa zabalduz, zerua eta lurra dardaraz jartzeko moduko builak atera zituzten. Une horretantxe, jendea erabat izutu eta harriturik, gora begira jarri zen. Egoera hartan, agure talde batek, herritarrak batzar batetara deitu gintuen. Inork ez zuenez gertatzen ari zenaren berri, neuk agertu nien ehiztarien kontrako protesta zela eta; jarrera hartan jarraituko zutela eskupetak erre artean. Horrela, bi aldiz pentsatu gabe, egun berean ospatzen zen San Juan suan eskupetak erretzea erabaki zuten. Herri hartan suzko armarik ez zuten gehiago ezagutu. Handik aurrera, txoko hura, munduko parajerik ederrena bilakatu zen. Bisitari guztiak, herri hark eskaintzen zuen txori kantaz liluratuak gelditzen ziren.

Aitona isildu da, denok aho-zabalik utzi gaitu eta emeki-emeki inguratu natzaio hau esanez:

—Ikastolan ikasia dugu, naturaren orekarako, animaliak behar-beharrezkoak direla; horrela, sai edo putreek, mendiak garbitzen dituzte, hildako animaliak janez.

Aitonak, hau entzunez, irrifar gozo batez zera esan dit:

—Zure aitak ere halako kezka eta antzeko gauzak kontatzen zizkidan.

Aitonaren kontakizunek beti izaten dute ezkutuko mezua; oraingo honetan ere, bere hitzak, esanahiez bustirik daude eta hauek ez dira zaku zulatuan erori; handik lasterrera taldeak, bide ertzean zaurituriko birigarro bat babesteko aukera izan baitugu.

«Eskopetero» ugari dabil
alde batetik bestera,
hegazitxoei tiroak botaz
bi edo hiru batera,
hegal azpia zauritu eta
gelditzen dira hilbera,
joka dezagun pertsona jator
eta leialen antzera,
polita da ta zain(du) dezagun
NATURAREN egoera. ■